

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Isasi Andikoetxea

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea



Biografia



Fruizen jaioa, guraso biak bertakoak zituen. Aita gerra garaian kanpoan ibili zen, eta bueltan etxea uzteko esan zieten; orduan -Pedrok 7 urte zituen- Bermeora joan ziren bizitzera, baserri zahar bat erosita. Zorpetuta geratu ziren. Zortzi senidetan seigarrena, ez zuen eskolara joateko aukerarik izan. 11 urterekin harrobi batean ibili zen lanean, baserria berritzeko harria ateratzeko. 12 urterekin morroi egon zen beste baserri batean eta 13 urterekin kontserba lantegi batean hasi zen lanean. 17 urterekin anai zaharrenak Pasai Donibanera eraman zuen berarekin: PYSBEn hasi zen lanean, alturako arrantzan, bakailaotan. 20 urtean ibili zen han, eta ondoren Oiartzungo Tajo kooperatiban, erretiroa hartu arte. Donibane bertako emakume batekin ezkondu zen (Larrabideko Ixiarrekin) eta bi seme-alaba izan zituzten. Ubera liburutegian egindako elkarriketa.

Zintak

PAS-065

- **Proiektua:** Sanjuandarren Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-12-11
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Umetatik harrobian lanean

- **Erref:** PAS-065/002
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:00:57. **Bukatu:** 00:04:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Fruizen jaio zen eta gerraostean etxea galdu zutenez, Bermeon baserri zahar bat erosi zuten gurasoek baina jausteko zegoenez, konpondu egin behar zen. Harrobian lanean hasi zen Pedro umetan. Zortzi senidetatik bosgarrena da.

2. Hamabi urterekin morroi

- **Erref:** PAS-065/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:06:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetatik harrobian egiten zuen lan eta gero baserrian. Ez da eskolara joan. Etxean gosea pasatzen zuten eta hamabi urterekin bizilagun batzuen baserrian hasi zen morroi bezala lanean. Goizeko lauretan esnatzen zen eta gabeko bederatzieta itzultzen zen etxera.

3. Oso pobreak ziren; jazteko ere ez zuten

- **Erref:** PAS-065/005
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:06:03. **Bukatu:** 00:08:34

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Oso pobreak ziren eta herriko haurrek burla egiten zieten ez zutelako jantzi onik. Mezetara goizeko seietan joaten ziren inork ez ikusteko. Baserritik bizi ziren eta zorrak zituzten. Babarrun asko ereiten zuten saltzeko eta babak atera eta gero gelditzen zen hondarra jaten zuten.

4. Baserriko bizimodu gogorra eta tristea

- **Erref:** PAS-065/006
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:10:47

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bermeora astoarekin joaten zen ama, baserriko produktuak saltzera. Senideetako inor ez da eskolara joan. Denek baserrian lagundu behar izan zuten. Argindarra bazuten baina ur korronterik ez. Bizimodu tristea izan zela gogoratzen du.

5. Melokotoiak lapurtzen

- **Erref:** PAS-065/007
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:12:24

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetan auzoko gainontzeko hurrekin jolasten zuen. Melokotoiak, gereziak eta sagarrak lapurtzen zituzten eta behin txakur batek hozka egin zion.

6. Itsasoan ikasi zuen gaztelaniaz

- **Erref:** PAS-065/009
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:12:32. **Bukatu:** 00:14:05

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Ez ziran jaietara joaten ez zutelako jantzi egokirik. Eskolara ez zenez joan ez zuen gaztelaniaz ikasi itsasoan lanean hasi zen arte.

7. Kontserba-fabrikan lanean hamahiru urterekin

- **Erref:** PAS-065/010
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:17:33

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Pedroren hiru arrebek neskame bezala lan egin zuten Bermeon, ezkondu ziren arte. Hamahiru urterekin kontserba-fabrikan lanean hasi zen. Bost zentimo irabazten zituen eguneko. Fabrikako lanak kontatzen ditu. Behin, atuna oraindik egosi gabe zegoela, galdara izorratu zen eta berari esan zioten bertara sartzeko.

8. Bermeoko Garavilla kontserba-fabrika

- **Erref:** PAS-065/011
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:17:33. **Bukatu:** 00:19:17

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Busturialdeko lantegiak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Bermeoko Garavilla kontserba-fabrikan ibili zen lanean. Antxoa eta atuna lantzen zen bertan. Prozesuak. Lata batzuk gaizki ixten ziren eta ezin ziren saldu.

9. Baserria berrizten

- **Erref:** PAS-065/012
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:21:18

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Harrobian lan egin zuen pika eta palarekin. Harria ateratzen zuen eta gero harginak lantzen zuen. Bertako harriekin baserria konpondu zuten eta urte batzuk geroago, Pedro itsasoan zegoela, berriztu egin zuten.

10. Pysbe lantegiko langilea

- **Erref:** PAS-065/014
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:25:08

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Hamazazpi urterekin Pysbe lantegian hasi zen lanean eta hiru itsasontzitan lan egin zuen 20 urtetan. Sotoan ordu asko pasatzen zituzten.

11. Norvegian, Ternuan eta Labradorren arrantzan

- **Erref:** PAS-065/015
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:25:08. **Bukatu:** 00:28:43

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Bost edo sei hilabetez ibiltzen ziren itsasoan bakailaoa arrantzatzen. Lehenengo bidaia Norvegiara egin zuen. Labradorren hotz asko egiten zuen eta eskuak izoztu egiten zitzaizkien kanpoan lan egiten zutenei. Arropa bereziak jazten zituzten, Pysbek emandakoak.

12. Itsasontziak sua hartu zuenean I

- **Erref:** PAS-065/016
- **Iraupena:** 0:06:14. **Hasi:** 00:28:43. **Bukatu:** 00:34:57

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Saint-Pierre Et Miquelon-en geldialdiak egiten zituzten. 1975eko azaroan bertan zeudela, aita hil zela jaki zuen. Franco hil zen egun berean hil zen. Saint-Pierren zeudela, beste itsasontziak sua hartu zuen. Gizon bat erre zen ezbeharrean eta ondo zegoen barkuan zulo bat egin behar izan zuten, erretzen zegoena salbatzeko.

13. Itsasontziak sua hartu zuenean II

- **Erref:** PAS-065/018
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:38:52

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Beraiekin zihoan itsasontzia barrutik erre zenean, ontzia beraienara lotu eta Saint-Pierre Et Miqueloneko portura eraman zuten. Bertan, Pedroren ontziak zeukan zuloa konpondu zuten eta etxerako bidea egin zuten. Itsasoa oso zakar zegoen eta tankean ura sartu zen. Beldur handia pasa zuten. Iritsi zirenean, lantegiko beste bi itsasontzi Kanadara bueltatu ziren, erretako ontziaren bila. Eguraldia txarra zela eta, ezin izan zuten ontzia ekarri. Gero Bilbora joan behar izan zuten kasuaren ikerketarako.

14. Tajo kooperatiban urte askoz lanean

- **Erref:** PAS-065/020
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:39:06. **Bukatu:** 00:39:54

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Koinatuek Oiartzunen zegoen Tajo kooperatiban lan egiten zuten eta bertan hasi zen lanean Pedro. Bertan jubilatu zen. Plastikozko piezak egiten zituzten.

15. Aita itsasoan eta familia herrian

- **Erref:** PAS-065/024
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:43:22. **Bukatu:** 00:46:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Pasaia iritsi zenean apopilo bezala bizi zen. Ezkondu eta itsasora joan zen. Bi urtera haurdun gelditu zen eta haurra bera itsasoan zegoela jaio zen. Hiru hilabeterekin ezagutu zuen eta itsasotik bueltatzen zen bakoitzean, haurrarentzat Pedro ezezagun bat zen. Oso gogorra egiten zitzaion.

16. Pysbe lantegiaren otorduak

- **Erref:** PAS-065/030
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:59:56. **Bukatu:** 01:01:39

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

San Joanera heldu zenean galiziar asko zegoen herrian. Pysbe lantegian, otorduak ematen ziren. San Roke egunean otordu berezia izaten zen. Lehorreko langileentzat izaten ez. Noizean behin bakailaoa ematen zieten.

17. Oso denbora gutxi egiten zuen lehorrean

- **Erref:** PAS-065/032
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:02:10. **Bukatu:** 01:03:55

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Urte asko daramatza San Joanen bizitzen. Normalean festak izaten zirenean itsasoan egoten zen. Oso denbora gutxi egiten zuen lehorrean. Gero Tajo lantegian hasi zen eta egunero lan egiten zuen, goizetik gabera arte.

18. Bizitza guztian lanean

- **Erref:** PAS-065/034
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:05:06. **Bukatu:** 01:06:02

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Tajo lantegian oporrak izaten zituenean, lizeoko zaintzaile bezala lan egiten zuen.

19. Arrantzalea izan eta igerian jakin ez

- **Erref:** PAS-065/040
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:12:09. **Bukatu:** 01:14:08

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Igerian ez daki nahiz eta arrantzalea izan den. Umetan, anaia nagusiak susto bat izan zuen eta Pedrok ikusi egin zuenez, beldurra sartu zitzaion eta ez du inoiz igerian ikasi.

20. Ezkontza eta eztei-bidaia

- **Erref:** PAS-065/044

• **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:16:16. **Bukatu:** 01:18:17

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Itsasotik bueltatzen zenean, udan, egun batzuk igaro eta berriz itsasoratzen ziren. Abenduan bueltatzen zirenean denbora gehiago pasatzen zuten lehorrean. Egun horietako batean ezkondu zen Pedro. Eztei-bidaia Madrilen egin zuten eta han beste bikote baten oso lagunak egin ziren.

21. Carrero Blanco hil zuten eguneko anekdota

- **Erref:** PAS-065/045
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:18:17. **Bukatu:** 01:19:46

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Mallorcara bidaian joan ziren behin eta bueltako egunean hil zuten Carrero Blanco. Bilbon eguraldi txarra zegoenez, hegazkinak Zaragozan lurreratu zuen eta taxia eskatzeko orduan, euskaldunak zirela jakinda, inork ez zien eraman nahi izan. Gabon gaua zenez, Donostiatik joan zen taxista bat beraien bila.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com